

# BAGABILTZA

LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 8. zk. 2022ko abendua.

## LAGUN EZKUTUA

Azkenean bai, Lagun Ezkutua heldu zen gurera! Eta 13 lagun ezkutuk parte hartu genuen guztira! Denetariko opariak agertu ziren, eta itxuraz behintzat, denok pozik geratu ginen. Benetan horrela izango al da?




## MINTZA SAIOAK

Guztira, 231 mintza saio egin dira Lan Harremanen Kontseiluan 2019/07/02tik 2022/10/17ra bitartean... Beste hainbeste egingo al ditugu aurrerantzean!



## URTE BERRI ON!

*2023an euskaraz lan egiten jarraituko dugu!*



**Javier**

**Gonzalez**

Neguko

egunetan melankoliak harapatzen nau. Oroitzapenak nire burura etortzen dira eta familiako hildako lagunek eta senideek hitz egiten didate. Lasaitzen nau haiekin hitz egiteak eta bizirik zeudenean esan ezin nizkien gauzak esateko aukera daukat orain. Melankolia udaberriko gauza dela diote, baina ni ez nago ados. Uda-berria jaiotzaren eta kolorearen sasoia da, eta negua heriotzaren eta iluntasunarena. Nola izan izan daiteke udaberria melankoliaren sasoia!

Neguan dena hilda dago. Ez dago argirik, ezta berorik ere, amesgaiztoa izango balitz bezala. Hori dela eta, nire ustez, haiek gau hotz eta ilunetan gugana hurbiltzen dira hitz egitera.

Egun batean, lagun horietako batekin hitz egiten nengoela, pentsatu nuen hemen egotea segundo bat dela, beste negu horretan familiako lagun eta senideekin hitz egiteko geratzen zaigunarekin konparatuz...